

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak laguntzak emango dituela iragarri du, itundutako ikastetxeetan beharrian espezifikoak dituzten ikasleei laguntzeko

*Laguntza, guztira, 3,8 milioi euro izango da eta eskaera egiteko epea asteazken honetan amaituko da*

Martes, 26 de abril de 2011

### Hezkuntza

Departamentuak 3,8 milioi euroko laguntzak emango dizkie hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleei eskolak ematen dizkieten itundutako ikastetxeei 2011-2012 ikasturterako.

Laguntzak eskatzeko epea datorren asteazkenean amaitzen da, apirilaren 27an. Eskaerak Hezkuntza Departamentuko

Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzura bidali behar dira.

Laguntzen helburua ikastetxeei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ematea da, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo irakaskuntzako mailetan beharrian bereziak dituzten ikasleei arreta emateko. Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo irakaskuntzan, zeinu-mintzaira espainiarraren interpreteak eta ezintasun motorea duten ikasleentzako zaintzaileak kontratatuzko erabiliko dira laguntzak.

Deialdiaren arabera, hauek dira beharrian espezifikoak dituzten ikasleak: ezintasun fisikoa, psikikoa, sensoriala edo jokabidearen nahasmendu larria dutenak eta ohiko ikastetxe batean integratzeko eskolatuta daudenak.

Hortaz, laguntzak ezin izango dituzte jaso Hezkuntza Bereziko itundutako ikastetxe espezifikoek zein trantsizio unitateetan edo ikasketa plan bereziko unitateetan artatzen diren ikasleek, horiek kasuan kasuko hezkuntza itun espezifikoak dituztelako.

Horrez gain, laguntzak ez dira izango eskolan atzerapena duten ikasleen aniztasunari arreta emate aldera ikasketa planak eta neurriak egokitzeko, baliabide horiek ohiko itunean barne hartuta baitaude.



Ikasle itsu bat Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean eskolak hartzen